



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 24a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatzeko aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko beharko dituen langile eta baliabide material egokiak. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jaioberrien baheketa areagoturako programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarteko Batzordearen bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzea. Hautagaia aldarrikatzea (11. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia. Txostena bukatzeko epea luzatzea (11. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatzeko aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko beharko dituen langile eta baliabide material egokiak.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatzeko aldera Landa Garapeneko eta Inguru-

meneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko beharko dituen langile eta baliabide material egokiak. Mozioa 2022ko maiatzaren 20ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/MOC-00050)

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako 2019- 2025 Desgaitasun Planari buruz Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak errepikatu egin du Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planaren zenbait alderdiri buruz egindako galdera (10-22/PES-00016). Hori dela eta, hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Parlamentariak dio ez zaiela galdera guztiei erantzun, eta xehetasun hauek ematen ditu:

Ez da adierazi zergatik ez den ebaluatu Desgaitasun Planaren gauzatzea 2020an.

Emandako erantzunean azaltzen da 2020. urtean egin zela 2019-2025 Desgaitasun Planaren lehen ebaluazioa. Lehen txosten horretan aztertu zen zenbateraino zeuden gauzatuta 2019. urterako aurreikusitako jarduketak, baina ebaluazioak zenbait baldintza eta muga izan zituen, COVID-19aren pandemiako une kritikoetan egin zelako. Horrek, gainera, funtsezko eragile batzuek ebaluazioan parte hartzea baldintzatu zuen.

Egokitzat jo da ebaluazioa 2022. urte honen amaieran egitea, garatutako ekintzen eragina neurtzeko nahikoa denbora izateko.

Ez da adierazi nork egingen duen Planaren ebaluazioa 2021aren amaieran.

Jada erantzun zen bezala, ebaluazioa 2022aren amaiera alderako dago aurreikusita. Errealitate Sozialaren Behatokiak egingen du.

Ez zaie erantzun 3. eta 4. azpierzuntzei.

Errepikatu egiten dugu emandako erantzuna, eta Desgaitasuneko eta Arreta Goiztiarreko plan operatiboak eransten ditugu, parlamentariak informazioa erkatu ahal dezan. Álvarez andreak ongi dakienez, Desgaitasun Plana eskuragarri dago Gobernu Irekiaren webgunean, esteka honetan:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/planak-eta-programak-gobernu-eraginak/nafarroako-2019-2025-desgaitasun-plana-ekin-tzak?msckid=490bfb8ec6ea11ec843c689198db9321>

2021eko Plan Operatiboan jasotako ekintzak, Eskubide Sozialetako Departamentuak gauzatu beharrekoak, 21 izan ziren, gehi arreta goiztiarreko berariazko plan operatiboan sartu ziren 16ak.

5. azpialderari dagokionez, hor ere ez duzu erantzun, eta parlamentari honek ez daki ulertu behar ote den ez dakizula zenbat ez diren gauzatu epe horretan; hori ere erantzuteko dago.

Errepikatu egiten dugu emandako erantzuna: urte honen amaierarako dago aurreikusita 2019-2025 Desgaitasun Planean jasotako neurrien lortpen mailaren balorazioa egitea. Ebaluazio hori egin ondoren, informazioa eskuragarri jarriko da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatutako planak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak erreplikatu egin du idatziz egindako galdera bat

(10-22/PES-00032), jakin nahi baitu zergatik eman zaizkien laguntzak abenduaren 10eko uholdeak pairatu zituzten klub jakin batzuei eta beste batzuei, aldiz, ez. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

2022rako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen zuzenketen bitartez Nafarroako Parlamentuan onetsi ziren dirulaguntzak izapidetu besterik ez du egin Kultura eta Kirol Departamentuak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, jaioberrien baheketa areagoturako programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jaioberrien baheketa areagoturako programari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00073), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "Hitzarmen bat edo loturako beste eraren bat formalizatu al duzue Miguel Servet Ospitalearekin aipatu prestaziorako?" (jaioberrien baheketaz ari da). Hona horri buruz Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Bada Nafarroako Foru Komunitatearen eta Aragoiren arteko lankidetzaren protokolo orokor bat, eta bada osasun arloko lankidetzarako hitzarmen bat Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean, 2019ko martxoaren 1ekoa, 2023ko martxora arte indarrean egonen dena. Behar izanez gero, aldatu egin daiteke behar den garaian eta prozedura-unean.

Parlamentuan duela gutxi azaldu denez, aukera logistiko eta operatibo hori aukeratu da aldi baterako, harik eta Miguel Servet Ospitaleko laborategia maila informatikoan NOPLOIren aplikazio informatikoarekin integratzen den arte metabolo-patien baheketarako. Une horretatik aurrera, metabolo-patien baheketa programa osoa Aragoi gauzatuko da. Bien bitartean, hasita dago jada prozesua, ahalik eta gutxien atzeratu dadin legea betetzea, nahiz eta lana eskuz edo egin behar den.

Bestalde, Nafarroan beharrezkoa zen honelako programa bat martxan jartzearen inguruko guztia antolatzea Nafarroako Laborategi Bateratuan, eta, ondorioz, inbertsioa egin behar zen teknologian, prestatutako profesionaletan, prozesuen balidazioan eta laborategiaren informazio sistemen eta NOPLOIren aplikazio informatikoaren arteko integrazioan, hutsetik hasita. Horrek guztiak legea martxan jartzea atzeratu behar zuen. Prozedura kontuetatik harago, azpimarra daiteke baheketa zabalago honen aplikazio praktikoa dela garrantzitsuena, eta Nafarroako herritarrei dakarrien aurrerapena, batez ere Foru Komunitatean urtero jaiotzen diren 5.000 haurrei.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Joan-etorri” zerbitzurako deialdiari buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana,koa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bernardo Ciriza Pérez jaunak galdera egin du, non informazioa eskatzen baitu gazteak herrietako jaietara eramateko “Joan eta etorri” zerbitzurako deialdiari buruz (10-22/PES-00076). Hori dela eta, hona Nafarroako Gobernu-ko Lurralde Kohesiorako kontseilari Ángel Ansa Echegaray jaunak ematen duen informazioa: Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetako kontseilariaren apirilaren 13ko 290/2000 Foru Aginduaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean “Joan eta etorri” bidaiarien garraio zerbitzua arautu zen eta hura ezartzeko jarraibideak onetsi ziren.

Foru agindu horren hitzaurrean azaltzen da araudiaren xedea: udal, kontzeju eta mankomunitateen jardunaren barruan ohikoa da kasuan kasuko udalerriko gazteen trafikoi istripuei aurrea hartzeko kanpainak antolatzea, haientzako gaueko autobus zerbitzuak paratuz, aipatu gazteak beste udalerriri edo herri batzuetara “eraman eta ekartzeko”. Horrela, ordu horietan auto partikularrak erabil ditzaten galarazten da. Zerbitzu horiei “Joan eta etorri” izena eman ohi zaie, eta aipatu erakundeek antolatzen dituzte, haiek baitira beren gazteen dibertsioetarako joera eta ohiturak hobekien ezagutzen dituztenak.

Maiatzaren 23ko 464/2001 Foru Aginduaren bidez, “Joan eta etorri” zerbitzuak ezartzeko prozedura arintze aldera, jarraibideak aldatu ziren zerbitzu modalitate ohikoenean, hau da, hilean gehienez ere ibilbide bereko lau bidaiak egiteko udalek kontratatzen dituzten zerbitzuetan. Zerbitzu horietarako, garraioen arloan eskumena duen zerbitzuari (Garraioen Ikuskapen, Kudeaketa eta Antolamenduaren eta Mugikortasunaren Zerbi-

tzua) baimena eskatu ordez, aurretiazko jakinarazpena egin behar zitzaiola ezarri zen.

Prozedura hau ezarri zen foru agindu horretan:

– Toki entitateak, indarra duen araudiaren araber segitu beharreko prozedurari jarraikiz, zerbitzua kontratatuko du bidaiarien garraio publikorako indarreko baimena duen bidaiarien garraio enpresa batekin.

– Adjudikazioa hartu duen enpresak zerbitzua emateko baldintzen berri emanen dio Garraioen Ikuskapen, Kudeaketa eta Antolamenduaren eta Mugikortasunaren Zerbitzuari, zerbitzua eman aurretik 15 eguneko gutxienez epean.

– Jakinarazpena ezarritako epean eta moduan egin ondoren, zerbitzua baimendutzat hartuko da, aipatu zerbitzuak, hartutako jakinarazpena aztertutik, zerbitzua ez emateko interes publikoko arrazoiak daudela egiaztatzen duenean salbu, kasu horretan baimena ukatuko baita.

Horregatik guztiagatik, argitu behar da Nafarroako Gobernuak ez duela “Joan eta etorri” zerbitzurako deialdirik egiten, aitzitik, toki entitateek sustatzen dituzte “Joan eta etorri” kanpainak beren eskumeneko eremuan, eta bidaiarien garraio enpresak kontratatzen dituzte zerbitzu horiek egiteko, eta, kasua bada, zerbitzuok erabilizko dirulaguntza ematen dute.

Garraioen Ikuskapen, Kudeaketa eta Antolamenduaren eta Mugikortasunaren Zerbitzuaren lana da erregistratzea “Joan eta etorri” zerbitzuaren kontratazioari buruzko jakinarazpena, garraio enpresek eginga; horrela egiaztatzen ahal da enpresa horiek garraioaren arloko araudia betetzen dutela eta badutela baimen indarduna.

Garraio enpresei jakinarazpenen bidalketa errazteko, jakinarazpenaren eredia eta haren tramitazio telematikoa egiteko bidea ezarri dira Nafarroako Gobernuaren atarian, helbide honetan: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/jai-bus-garraio-zerbitzua-emateko-jakinarazpena>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Nafarroa Suspertu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordearen bilere buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroa Suspertu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordearen bilere buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak informazio eskaera egin du (PES-0077), non honako galdera hauek egiten baititu:

Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Suspertu Planaren koordinazio publikoaz arduratzen den Departamentuarterko Batzordea?

Nor agertu zen haietako bakoitzera?

Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Hori dela eta, Nafarroako lehendakariak jakinarazten dio Nafarroako Gobernua Nafarroa Suspertu Planari lotutako baliabide guztiak garatzen ari dela ohiko dinamiken esparruan, eta ez duela modu formalean eratu berriazko organorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroa Suspertu Planeko Zuzendaritza Batzordearen bilerei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak informazio eskaera egin du (PES-0078), non honako galdera hauek egiten baitizkio Nafarroako lehendakariari:

Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Suspertu Planeko Zuzendaritza batzordea?

Nor agertu zen haietako bakoitzera?

Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Nafarroako Gobernua Nafarroa Suspertu Planari lotutako baliabide guztiak garatzen ari da ohiko dinamiken esparruan, eta ez du modu formalean eratu berariazko organorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseiluaren bilerei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak informazio eskaera egin du (PES-0079), non honako galdera hauek egiten baitizkio Nafarroako lehendakariari:

Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da Nafarroa Suspertu Planeko gizarte-kontseilua?

Nor agertu zen bakoitzera eta zer kolektibo edo entitatereen ordezkari gisa?

Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Nafarroako Gobernua Nafarroa Suspertu Planari lotutako baliabide guztiak garatzen ari da ohiko dinamiken esparruan, eta ez du modu formalean eratu berariazko organorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroa Suspertu Planeko neurriak exekutatzeko aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak informazio eskaera egin du (PES-0080), non honako galdera hauek egiten baitizkio Nafarroako lehendakariari:

Zer mekanismo proposatu zaio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari Nafarroa Suspertu Planeko neurrien exekuzioa koordinatzeko?

Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu dira, mekanismo horren edo beste baten bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa neurri horiek koordinatzeko?

Zein dira bilera bakoitzera agertutako ordezkariak?

Zein izan da haietako bakoitzaren gai-zerrenda?

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ohiko moduan lantzen dituzte

Nafarroa Suspertu Planari dagozkion gaiak, Nafarroako erakundeen arteko elkarlanaren eta koordinazioaren bidetik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 3an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzea.

HAUTAGAIA ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzeko arauekin bat, zeinak 2022ko maiatzaren 9ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (61. NPAO, 2022-05-12koa), honako hau ERABAKI DA:

1. Edurne Eginoa Antxo andrea Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendari izateko hautagai aldarrikatzea, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak proposatuta.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia.

TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentziaren lehendakariaren idatzia, zeinean jakinarazten baitu ponentziak ezin izanen dituela bere lanak aurreikusitako epean bukatu eta dagokion txostena burutzeko epea luzatzea eskatzen baitu, Nafarroako Parlametu-

ko Erregelamenduaren 37. artikulurekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Ponentziaren txostena bukatzeko epea 2022ko urriaren 31ra arte luzatzea (10-21/PON-00002).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

